



2016. urtea
GAILUR
MENDI TALDEA
lezama • 1991-2016



JARDUEREN DIRU-ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK ETA HORIEN PREZIOAK

Dokumentu honen helburua da zehaztea zer irizpide erabiliko dituen Klubak berak sustatzen dituen jardueretara baliabide ekonomikoak esleitzeko, baita jarduerok zer kostu izango duten ere horietan parte hartzen dutenentzat.

Helburu hori lortzeko, ezinbestean zehaztu behar da zer hartuko den kontuan baliabideak esleitzeko.

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

1.-JARDUERETAKO PARTE-HARTZAILE MOTA

- **Bazkidea:** adinez nagusia, urteko kuota ordaintzen du (15 €).
- **Bazkide elkartua:** martxoaren 1aren aurretik egin zen bazkide.
- **Bazkide berria:** martxoaren 1aren ondoren egin da bazkide.
- **Jarraitzailea:** adingabea, bere guraso nahiz tutoreen bitartez dauka lotura klubarekin; horietakoren batek bazkide izan beharko du. Ez du urteko kuotarik ordaintzen, eta haren ardura duen guraso edo tutorearen maila bera (elkartua edo berria) hartzen du.
- **Bazkidetu gabea:** Adinez nagusia, ez du bazkide izateko urteko kuota ordaintzen, baina parte har dezake Klubak sustatzen dituen jardueretan.

Bazkideek eta jarraitzaileek lehentasuna izango dute, bazkidetu gabeen aldean, plaza mugatuak direla-eta irtenaldia aurrez erreserbatu behar bada.

2.- JOAN-ETORRIAREN GASTUAK

- Ibilgailu pribatuaren erabilera lagatzearen ondoriozko kilometrajea.
- Ibilgailuaren alokairua.
- Alokairuko ibilgailuan erabilitako erregaia.
- Bidesaria (dela ibilgailu pribatuarekin, dela alokairukoarekin).
- Garraio publikoa (autobusa, trena, tranbia, teleferikoa edo antzekoa).
- Taxi (garraio publikoa erabili ezin denean).
- Hegazkina (joan-etorriaren distantziak eta irtenaldiaren iraupenak gomendagarri egiten badute).

3- OSTATU- ETA MANTENU-GASTUAK

- Gaua igarotzea.
- Mantenu mota (gosaria, mantenu erdia edo mantenu osoa).

4.- LEZAMAKO ESKOLA PUBLIKOKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEAREKIN EGINDAKO JARDUERAK

- Lezamako Eskola Publikoko guraso-elkarteko kideek Klubak elkartearekin sustatutako jardueretan parte hartu nahi badute, bazkideztat hartuko dira (familia-unitateko parte den helduetako bat gutxienez).
- Adingabeek jarduerotan parte hartu ahal izateko, ezinbesteko betekizuna da dagokion federazio-lizentzia edukitzea eta haren guraso edo legezko tutoretako batek lagunduta egitea jarduera.
- Aldiz, Lezamako Eskola Publikoko guraso-elkartean kidetutako norbaitek Klubeko urteko egutegiko gainerako jardueretan parte hartzen badu, dagokion maila hartuko du (bazkidea edo bazkide gabea).
- Irtenaldi horietan parte hartzen duten Klubeko bazkideek, ez badute loturarik Lezamako Eskola Publikoko guraso-elkartearekin, Klubaren urteko egutegian sartutako gainerako jardueretako hoberi berak izango dituzte.

KLUBAK JARDUERETARAKO ESLEITUTAKO DIRU KOPURUA

1.- JOAN-ETORRIAREN GASTUAK

- Irtenaldi guztietan, direla egun batekoak, direla hainbatekoak, Klubaren kargura egingo dira joan-etorriaren gastuak, aurrez zehaztutako kontsiderazioen ondorioz sortu badira.
- Joan-etorria ibilgailu pribatuan egiten bada, kilometraje gisa, kilometro kopurua bider 0,20 € egitean lortutako emaitza ordainduko dio Klubak ibilgailuaren jabeari.
- Joan-etorria alokairuko ibilgailuan egiten bada, Klubak ordainduko du alokairuaren gastu osoa eta erregaien gastua.
- Bidesaria: joan-etorri guztietan, klubak ordainduko du kontzeptu honen ondorioz sortutako gastuen zenbateko osoa. Gainerako garraio bideak: Klubak ordainduko du dagokion garraioa erabiltzeko erosi behar den txartelaren kostua.
- Kilometrajearen kostua izan ezik (Klubak jaulkitzen du horren likidazio-orria), joan-etorrien gainerako gastuetarako ezinbestean aurkeztu beharko da egindako gastua ziurtatzeko ordainagiria
- Edozein dela ere erabilitako garraio bidea, Klubak 150 € ordainduko dizkio, gehienez ere, jardueran parte hartzen duen pertsona bakoitzari.
- Klubak jarduera bateko parte-hartzaile denei guztira kontzeptu horren ondorioz ordaindu beharreko kopuruak urteko aurrekontuan irtenaldi horretarako xedatutako zenbatekoa gaitutako balu, onartutako aurrekontuetan xedatutako zenbatekoa ordainduko luke Klubak, eta jardueran parte hartzen dutenen artean hainbanatuko luke diferentzia.

2.- OSTATU- ETA MANTENU-GASTUAK

Klubak ez du dirurik emango kontzeptu hauetarako.

Salbuespen bakarra egingo da: jarraitzailea (elkartua nahiz berria) 12 urtetik beherakoa bada (12 urtekoak barne), kontzeptu honegatik dituen gastuen % 50 ordainduko dio Klubak.

3.- ASTEBURUKO IRTENALDIA LEZAMAKO ESKOLAKO GURASO-ELKARTEAREKIN LANKIDETZAN

Irtenaldi honek amaiera ematen dio ikasturtean zehar Lezamako Eskola Publikoko gurasoekin lankidetzan gauzatutako jarduerari; beraz, salbuespen bat da.

Hala, Klubak eta Lezamako Eskola Publikoko guraso-elkarteak erdibana ordainduko dituzte proiektuarekin lotura duten helduen joan-etorrien gastuak, baita haien ostatu- eta mantenu-gastuen % 50 eta haiei ematen zaien oparia ere.

Irtenaldi honetan parte hartzen duten bazkideek (elkartu nahiz egin berriek) eta bazkidetu gabeek bakoitzari dagokiona ordaindu beharko dute, hainbat eguneko irtenaldietarako adierazitako irizpideen arabera.

JARDUEROTAN PARTE HARTZEN DUTENENTZAKO PREZIOA

1.- EGUN BATEKO IRTENALDIAK BIZKAIAN

- **Bazkidea (elkartua nahiz berria):** Doan.
- **Jarraitzailea:** Doan.
- **Bazkidetu gabea:** 15 €.

2.- EGUN BATEKO IRTENALDIAK BIZKAITIK KANPO

- **Bazkidea (elkartua nahiz berria):** 5 €.
- **Jarraitzailea:** Doan.
- **Bazkidetu gabea:** 20 €.
-

3.- EGUN BATETIK GORAKO IRTENALDIAK

- **Bazkide elkartua:** 10 € + ostatu- eta mantenu-gastuengatik dagokion zenbatekoa.
- **12 urtetik gorako jarraitzaile elkartua:** ostatu- eta mantenu-gastuengatik dagokion zenbatekoa.
- **12 urtera arteko jarraitzaile elkartua (12 urtekoak barne):** ostatu- eta mantenu-gastuengatik dagokion zenbatekoaren %50.
- **Bazkide berria:** ez da Klubaren ekarpenaren onuradun; beraz, kontzeptu hauen baturak emandako zenbatekoa ordainduko du:
 - **Joan-etorriaren gastuak:**
 - Banakako garraiobidea erabiltzearen ondoriozkoak badira, txartelaren kostu osoa ordainduko du.
 - Irtenaldian parte hartzen duten beste batzuekin partekatutako garraiobide baten ondoriozkoak badira, kontzeptu guztietan proportzioan dagokion zatia ordainduko du.
 - **Ostatu- eta mantenu-gastuak:** kontzeptu honen ondoriozko bere kostuak ordainduko ditu.
- **12 urtetik gorako jarraitzaile berria:** berau Klubarekin lotzen duen elkartu berriaren (gurasoak edo tutoreak) tratamendu bera jasoko du.
- **12 urtera arteko jarraitzaile berria (12 urtekoak barne):**
 - Joan-etorrien gastuetan, berau Klubarekin lotzen duen elkartu berriaren (gurasoak edo tutoreak) tratamendu bera jasoko du.
 - Ostatu- eta mantenu-gastuetan, kontzeptu honen ondoriozko bere gastuen % 50 ordainduko du.

- **Bazkidetu gabea:** Bazkide berriaren zenbateko bera ordainduko du, gehi 15 €-ko gehikuntza.

AZKEN OHARRA

Zirkunstantzien ondorioz gomendagarri eta beharrezko ikusten bada agiri honetako atalen bateko idazketa aldatzea, dokumentu osoa berrikusi eta eguneratu beharko da, bazkideen Batzar Orokorrean onartu beharko dute, eta bazkideen artean zabaldu beharko da.

Jatorriko dokumentua: 14.12.2013

Aldaketa-eguna: 2014.12.20

Aldaketa-eguna: 2016.12.17

INDARREAN: 2016.12.17

LEZAMA **GAILUR** MENDI TALDEA

Caraioltza, 133-E 48196 Lezama (Bizkaia)

gailurmt@outlook.com

www.gailur.org

